



BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA

solaslaguna

SOLASLAGUNA: AURKEZPEN PINTXO POTEOA BERAN

Urriaren 28an, ortziralea, Solaslaguna programaren aurkezpen pintxo poteoa eginen dugu Beran, Beralandeta aretoan jarriko dugu hitzordua, 19:00etan, bertan denak bildu eta ondotik abiatuko gara pintxo poteoan.

Bortzirieta, Malerrekako eta Baztango Solaslaguna 2007an sortu zen. Solaslaguna programan euskarazko mintzamina hobetu nahi duten hiztunak (bidelariak), txukun solasten direnekin (bidelagunak) elkartzen dira talde txikietan (normalean launaka edo bosnaka), **astean behin eta ordu betez**. Iaz 100 lagun izatera ailegatu ginen.

Solaslaguna bezalako programetan parte hartzen dutenek euskara maila hobetzeaz gain, gehiagotan erabiltzen dute eta ongi pasatzen dute, saioetan hagitz gustura egoten direla aipatzen dute.

Euskara ikasten ari diren lagunei lagundu nahi badiezu, edo zure ahozko euskara maila hobetu nahi baduzu SOLASLAGUNA da bilatzen duzuna.



Solaslaguna programan parte hartu nahi baduzu edo programari buruzko informazioa jaso, aukera polita izanen dugu urriaren 28an.

Informazio gehiago:

Solaslaguna

<http://solaslaguna.blogspot.com>

610 920 673

Bortzirieta Euskara Mankomunitatea:

<http://www.bortziriak.org/>

948 634 125

Bortzirieta IKA:

948 637 796

EGUNA: URRIAK 28, ORTZIRALEA

ORDUA: 19:00

TOKIA: BERAKO BERALANDETA ARETOAN